

Nire maitasuna

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Begiak irekitzen dituzunean, ez dituzu berriro ixten, erran zidan Mariasun Landa handiak etxean goxo hartu nindue-
nean. Loti ederraren ipuinari buelta eman zion Emakunde Saria jasotzean. Ederrak ez dio printzeari gehiago itxa-
rongo, eta abenturak bizitzera aterako da, begiak erne.

Neska eta emakume aunitz bezala, loti ederra izan nintzen ni ere, loaldi luzean. Itxaronaldiak ametsez betetzen nituen eta, noski, topaketa murrizta izaten zen fantasien aldean. Horrek mina eragiten zidan: tximeletak hilda, sabelean zulo handi batekin itzultzen nintzen. Denbo-
ra bat behar izaten nuen nire onera bueltatzeko, eta mezu bat aski zen ber-
riz zain jartzeko.

Bi muturretan mugitzen nintzen: ha-
sieran, pelikula batean bizitzea bezala-
koa izan zen, ilargia bera logelako leiho-
tik sartzen sentitu nuen. Ezin nuen
inoiz ukitu, ordea. Errealitatea agertuz
joan zen, eta, nire burua gehiago engai-
natzeko tarterik gabe utzi nindue-
nean, begiak itxi nituen. Eramangarriagoa zi-
tzaidan egunero min pixka bat hartuz
irautea, mendeko segituz, nire buruaren
ardura hartu eta askatzea baino.

Ez nengoen lasai eta ez nengoen ados
nire buruarekin, baina gauzak aldatuko
zirela eta halako batean printzea azaldu-
ko zela sinestean tematu nintzen. Pro-
zesu luze bat izan zen begiak irekitze-
koa, kosta zitzaidan eta mina sentitu
nuen, izugarria, baina ez zen begiak itxi-
ta nituelarik sentitzen nuen mina beza-

lakoa. Oraingoan, malkoak sendagarriak
izan ziren. Ongi ulertu nuen ez zegoela
bueltarik: begiak irekitzen dituzunean,
ez dituzu berriro ixten. Bizitu nuen isto-
ria bakarra zela uste izan banuen ere,
ohartu nintzen arrunta dela eta ez nin-
tzela lo egon izanen gizona banintz. Li-
buruetan irakurri ditut pasarteak idatzi-
ta dauden bezala bizitu ditudanak. Loti
ederraren ipuina ere txikitatik ezagutu
dut, baina ez dut antiojo moreekin leitu.

Feminismoaren magalean, erakutsi
diguten maitatzeko moduaz kontura-
tzen eta zabalago maitatzen ari naiz.
Karmele Jaiok “Maitasun kapitala” zora-
garrian dioen bezala, nori –eta zeri,
gehituko nuke– eman nahi diodan leku
bat nire bizitzan. Hori da, azkenean, nire
maitasuna. •

Ilea

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Gure itxuraren parte oso gar-
rantzitsua hartzen du ileak,
bere formak, koloreek eta ka-
litateak, baina batez ere ilea
izateak berak.

Gorputzaren gainontzeko atalek beza-
la, ileak bere ibilbidea egiten du, luzatu,
berritu, urdindu, erori, galdu ala ez, eta
zaintzeko ahaleginak egiten ditugu ile-
apaindegira tartean-tartean joanez.

Garai batean, buruko ilearen itxurak
prezio kimiko erretzailea izaten zuen,
baina gaur egun, zorionez, badira trata-
mentu naturalak itxuraz gain osasuna
babesten dutenak. Ikasi dugu osasuna
eta edertasuna zuzenki lotuta doazela,

eta ahaleginak ez duela zertan garestia-
go izan.

Ez gara konturatzen itxurarekiko du-
gun pertzepzioa jaso dugun kulturak ku-
tsatuta dagoela eta ez dela gure boron-
date asketik eraiki. Zenbat kalte egin
dion ileari Chavarri andereak!

Eskerrak ilearen kultura zabalago eta
askeagoan bizi garen, teknika, produktu
eta ikuskera berrien laguntzaz.

Denak balio du. Nahi bezala eramaten
dugu, kalparra izan arren burusoilduta,
motza, luzea, koloratuta, “rasuratuta”
hankak, iztaiak, barrabilak, bularra, be-
sazpiak, bizkarra, sudurra, belarriak,
alua, zakila, edo laser bidez betiko ken-

duta. Batzuetan badirudi gizakiak guda
deklaratu diola ileari.

Denak ez du balio, baina, hau parado-
xa, ilea duena moztuta edo kenduta zo-
riontsu sentitzen da, eta, aldiz, galdu
duenak estresagatik, kimioterapiagatik
etab. trauma psikologikoa sufritzen du.
Badirudi inoiz ez dela guztion gustuko,
kontua ez baita ilea izatea ala ez izatea,
norberaren borondatea den ala ez baizik.

Nago gizakiarentzat ileak itxuraren
parte garrantzitsua izaten jarraituko
duela gutxienez eternitatera arte; bada,
noizbait ezagutuko ote dugu eguna nor-
berak nahi duen bezalako ilea izango
duena, buru-osasunaren mesedetan... •